


Euskal AEko BPG % 0,2 hazi da eta enplegua % 0,5 2021eko lehen hiruhilekoan

2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, BPGk % 2,9 egin du behera

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 0,2 igo da 2021eko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustatek egindako Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenaren kalkuluen arabera. Hiruhileko arteko aurrerapen hori apalagoa da 2020ko azken hiruhilekoan kalkulaturakoa baino (% 0,5), baina tasa positiboak dituen ondoz ondoko hirugarren hiruhilekoa da.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aldiz, Euskal AEko BPG % 2,9 jaitsi da. 2020ko azken hiruhilekorako zenbatetsitako urte arteko atzerakada handiagoa izan zen, % 7,6koa.



Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtua, % 0,5 gehitu da aurreko hiruhilekoaren aldean. Aurreko urteko laugarren hiruhilekoan enpleguak ez zuen aldakuntzarik izan hiruhileko artean.

Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, ordea, % 2,1eko atzerakada zenbatetsi da. Aurreko urte arteko jaitsiera, 2020ko azken hiruhilekoan zenbatetsitakoa, nabarmenagoa izan zen, % 6,3koa.

Datorren ekainaren 4an Eustatek argitaratuko ditu 2021eko lehen hiruhilekoko Hiruhileroko Kontuetan BPGren eta enpleguaren zenbatespen bereziak, Aurrerapen hau egiteko unean eskuragarri ez zegoen informazio koiunturala sartu ondoren.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62